

**KULTURA**

sortzen dugu

BILBAO 700 • III MILELIUM

Sormena bultzatzen dugu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, berriak eta klasikoak, behar-beharrezkoak.

Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.

Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia.

Hau da gure kultura.


[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

**bbk**

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA  
**berria**

Lege gordailua: B1-95-98  
ISSN: 1577-9025

2002ko MAIATZA  
44. zkia. DOHAIN



**"Euskara Mendian"**  
Mendira euskaraz  
joateko liburua

**Francis Diez**


**"Abestiak idazten hasi  
nintzen ez nintzelako  
gauza beste abeslariarenak  
gogoratzeko"**



## Ibaizabal Oilargan eta Begoña artean (1875)

*Urte moltzo polita pasatu da Pedro Telesforo Errazkinek erretratu hori egin ebanetik. Hainbeste ze gaur egun etxe horiek danak desagertuta dagozan eta Ibaizabalen bidea bera be aldatuta dagoan. Treneko zubiak, ostera, zutunik dirau oraindino Oilargan auzoaren atzekaldean. Ibaiaren ezker ibarreko etxe horien orde ez egun Abusu auzoa daukogu. Eskuinean, Begoñako errepublikako eremuetan, 'Paseo de los caños' famatua egoan. Gaur egun Ibaizabalen errebolta laburragoa da eta antxineko okindegi fabrika zaharrean Abusu ikastola dogu. Hainbeste urte eta hainbeste aldaketa. Baina koplak zaharrak diñoen legez, 'mila urte igarota, ura bere bidean...'*

*Argazkia 'Bilbao 1860-1895. Pedro Telesforo Errazquin' liburutik hartu dogu. Euskal Museoak paratua eta argitara emondakoa.*



▶ Iritzia .....	4	▶ Mahatsberriak .....	20
▶ Bertsolari Mahatsorriak .....	5	▶ Hezkuntza .....	24
▶ Begoña eta Euskerea .....	8	▶ Kirolak: Imanol Agirre .....	26
▶ KZguneak .....	10	▶ Mendi Ibilbidea .....	27
▶ Euskara mendian liburua .....	12	▶ Lutxo Egia .....	28
▶ Elkarrizketa: Francis Diez .....	15	▶ Horoskopoa/Agenda .....	30
▶ Inkesta .....	19	▶ Hileko Argazkia .....	31

Esan dostie Bertonekoak liburu bet atara dauriela, ta pentsau dot: honeik liburuek atara? Rebistatxue ataratako bere estutxu ibiltan direz ta liburue? Baaaa! Da egidixe da ba! Liburue atara dauriela ba! Aittu ba! Hamen dekozu ba! Eneeeee! "Euskara mendian" itodalaletxe, aittu, aittu!

Da gero jakin dot zelan lagun batzuk ibili zirien mendirik mendi euskerie ikastierren, ta mendidixen gora ta mendidixen behera ibiltan kantsau-edo ta pentsau zeurien: Ba orain kontau eingo dogu, konsantosisenales. Ta pentsau ta ein! Ederto gero! Hau de hau ba!

Dana dala, euskerie ikastierren mendire joan? Zelan ikisiko dozu euskerie mendidixen? Ein bere izin de ein ta! Entre bateko aldatz gora arnasa hartuteko ez dagoala berba eitten dauen aman umerik, ta besteko han nok berba eginik bere apenas ez dagoala, zelan ikisi lei ba! Ba honeik ikisi ta errematie, liburue ein, eutsi horri

ba! Meritue! Ganera, oin tunelakaz eta kamino handidexek eta autopistakaz ta holangoakaz mendire ezta satorrak bere. Honeiri mendidixe gustau ta haretxegaittik joaten zirien, baie euskerie ikastierren da eittierren modu gehidxago bere badagoz. Batzuk etxeondotik urten barik bere, bertsotan batzuk ta koplatan bestiek, berbaz batzuk ta eskribuduten bestiek. Ein lei, ein lei ba. Halan ta guztiz badagoz batzuk hamen ein ez ta diñourienak hamen izin dala ta, mendire ta basora joan bier dala eitten, baie autopistak, tunelak, kaminoak, funikularra ta guzti bere, ez mendire, ez euskeraz bere. Iguel! Valladolidekoak galazoten dauenien Artxandako tunelien sartuko direz euskera eitten, danok bere sartuko gazez iguel, edo sartuko gaittuez. Nik porsiakaso liburue eraz eukingo dot gorantz jo bier bada edo. Edozelan bere, oraingoz ez eskapau mendire euskeraz eittierren (edo hamen ein ez eittierren) – behintzet –.

## BEGOÑAKO BASARRATE LANDAREN ESANGURAREN INGURUAN



Plaza hau Begoñako eleizateko Santutxu auzoan dago. Beraren inguruan kale honeek aurkitzen dira: Juan de la Cosa, Iturriaga eta Losada margolariarenak.

Plaza honetatik hur-hurrean Luis Briñas ikastetxea dago. Izan bere, Luis Briñas eta Mac-Mahon 1849. urtean jaio zan Bilbon, eta 1938. urtean hil. Bera aberats-aberatsa izanik, bere dirutzatik zati handi bat emon eutsen Bilboko uribilduko hainbat erruki-etxeri. Hori guztia zala eta, beraren izena ezarri jakon Basarrate plazatik hurrean dagoan eskolari.

Bada Begoñako eleizatearen izendegi bat, 1865. urtekoa, bada, izendegi horretan "Basarrate" izeneko baserria ageri da; izen horren etimologia lotuta dago zimaurrearen sinonimoa dan basaragaz. Leku honetan ganadu feriak egiten ziran.

XX. gizaldian, Basarrate izen jatorraren ordeztu, "Plaza del Muerto" ("Urkatuaren Plaza") erixten izan jakon plaza horri hainbat urtetan, bertan lagun bat hilda urkatuta agertu zalako-edo; oraindik bere, hainbat bizilagunek horrela erixten deutse. Beti bere, egia izan, asmazinoa izan, garbi dago eskal izenei eustea behar-beharrezkoa dala, ezik hori ez da hizkuntz kontu hutsa, ezperen eskal kulturaren zuztarrei eustea, eta bera edozein tokitan agertuazotea.

GOTZON LOBERA REVILLA

## PONTOIKO IRIN FABRIKA



Begoñako lurretan, Bilbotik hurbil, ibaiaren ertzean, Bilboko Udalak lau errotako bolua eraiki zuen 1571n. Geroago, 1794n, Alejo de Miranda arkitektoari esan zioten errota zaharberritzeko eta neurriko labedun okindegi handi bat egokitzeko. Horrelaxe sortu zen gaur egun ikusten dugun harrizko eraikin lerdena. Lau pisu altu egin zuten, paralelogramo itxuraz. Bertikalean hazitako lehenengo eraikin industrialia izan zen gurean. Apaindurarik ezean, sotiltasun geometrikoaz jantzi zuten. 107 zulo dauzka, modu erregularrean banatuta. Arkitektura neoklasikoak Bilbon utzitako aztarna garrantzitsu bakanetako bat dugu.

Eraikin sendoa izanik, armada liberalak defentsarako gotorleku gisa erabili zuen harik eta karlistek 1835ean eraso zuten arte. Sugarretan utzi zituzten fabrikako hondarrak. Gerra ostean, 1844ean, abarketetarako oihala egiten zuen 'Fabrica de lencería de Miraflores' jarri zuten bertan. Bigarren gerra karlistaren gatazketan, 1874ean, su eman zioten beste behin. Haren hondar historikoak 1995ean suspertu zituen Abusu ikastolak, fabrikaren garrantzi historiko eta arkitektonikoari begirune gehiegi erakutsi ez zion proiektu batez.

Industri multzo hartako beste osagai bat, errota hain zuzen, Ferrovial enpresak suntsitu zuen 1987ko apirilaren 2an. Egin, modu basatian egin zuen eta ezelango zigorrik jaso gabe. Errota erauzi zuten zertarako eta ondoan Santa Isabeleko zubia eraikitzeke euren hornidurak eta instalazioak bertan jarri ahal izateko.

IÑAKI URIARTE

**Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

ARGITARATZAILEA:  
Batana Batu Kultur Elkartea

ERREDAKZIOA:  
Iturriaga 55, 1. ezk.  
Bilbo - 48004  
Tfnoa:  
94 473 54 48  
e-posta:  
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA:  
Hektor Ortega  
ERREDAKZIOA:  
Arrate Diez,  
Joana Etxebarria, Irune Berro, Iratxe Ruiz, Erdoitza Martínez Unai Cuevas

ARGAZKIAK:  
Iñigo Azkona eta Xabier Herrera

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:  
Iñaki Berastegi  
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:  
Jaione Letamendia, Itxaso Perez, Alberto Ugarte, Iñaki Gaminde, Igor M. de Vidales, Santutxuko Bertso Eskola, Iñaki Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,  
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA:  
Koldo Urrutikoetxea,  
Zuriñe Martinezt

LEGE GORDAILUA:  
Bi-85-98

ALE KOPURUA:  
1.200

## BERTSOLARI MAHATSORRIOK POLITO BILBOALDEKO TXAPELKETAN

### OIHANA BARTRA GAZTE SANTUTXUARRAK BIGARREN EGIN DU MARTA ORTIZEN ATZETIK



Oihana Bartra kantari Santutxuko bertso saioan

*Bilboaldeko bertsolaritzak azken urte hauetako markarik onenak ezarri ditu apirila eta maiatza bitartean egindako txapelketan. Parte hartzaile asko, entzuleak ere ez gutxi, eta kalitate maila ona. Jardun horretan mahatsorriak nabarmendu dira eta horren lekuko Oihana Bartra gazteak lortutako bigarren postua, Marta Ortizen atzetik. Bizkaiko txapelketan ikusiko ote dugu?*

Testua: Hektor Ortega  
Argazkiak: Mahatsorriano



**IRUDIA SORTZEN DUGU BILBO**

Santutxu kalea, 46  
Tfnoa: 944 333 935  
Santutxu kalea, 37  
Tfnoa: 944 128 714

**HORTZ KLINIKA GERMÁN BERGARETXE**

GABRIELARESTI, 30 4. G  
TXURDINAGA

94 412 82 74

**CYBER TIME**  
Ordenagailua gurea da  
ideiak, zureak

Sarean jolasak  
Internet  
Inprimaketa  
Eskanerra  
Datu grabaketak...  
Aita Pernet, 1  
48004 Santutxu  
Bilbo  
Tfnoa/fax: 94 459 74 06  
E-mail: cyber-time.euskalnet.net  
http://www.cyber-time.euskalnet.net

**D**uela urte bi hasitako ereduari jarraiki, aurten ere Bizkaiko Bertsolari txapelketaren aurretik eskualdeko txapelak jarri dira jokoan. Horrela, formatu txikiagoko saioetan, bertsolari berriei aukera ematea errazagoa da eta hitzaren kirol nazionalaren hazia eraginkorrerago eraiten da.

Bilboaldeko txapelketa apirilaren amaieran hasi zen Kafe Antzokian egintako lehenengo kanporaketarekin. Ostean, Asapala Euskara Elkarteak antolatuta, bigarrena jokatu zen Santutxun maiatzaren 3an. Bi hauek bertso afari gisa jokatu ziren. Kafe Antzokian hirurogeiren bat lagun batu zen lehenengo kanporaketaren nondik norakoak jarraitzeko. Saio horretan Marta Ortiz gailendu zen.

Bigarren saioa Santutxuko Galtzagorri sagardotegian jokatu zen. Berrogeita hamarren bat bertsozale batu zen afaltzeko eta, ondoren, lehiakideen kantu jardunaz gozatzeko. Kasu honetan Jon Eizmendi hernaniarra atera zen irabazle. Oihana Bartra santuxuarra bere lurrean profeta izan zen eta saio txukuna biribildu zuen.

Gazte mahatsorriaren puntu uzta Jon Eizmendirekin batera kantutako bertsoetan nabarmen handitu zen. Eizmendi Santutxutik kanpora bizitzera joan nahi ez zuen nobioarena egiten zuen, eta Oihanak horrelako arrazoi sendoez kantatu zion:

*Bide horretan segitu behar dut  
Ez dizut egingo kasu  
Hementxe utzi beharko dozuz  
Lagunak eta amatu  
Ultimatuma egingo dizut  
Gogotsu eta indartsu  
Aukera egin beharko duzu  
Edo ni edo Santutxu.*

Behin kanporaketak eginda, maiatzaren 24ean Basaurin Bilboaldeko finala jokatu zen. Ehunen bat lagun aurrean Marta Ortiz, Jon Eizmendi, Oihana Bartra, Iñaki Aurrekoetxea, Matxalen Zabaljauregi eta Jurgi Garitagoi-

tia aritu ziren. Giro politean egin zen baina, adituen iritziz, "kalitate espektatibak ez ziren bete. Duela urte bi gauza bera gertatu zen, nerbioengatik edo".

Esate baterako, askoren iritziz faborito nagusia izan behar zuenak, Jon Eizmendi hernaniarra alegia, ez zuen bere maila eman. Marta Ortizek, oster, ez zuen aukera galdu eta Bilboaldeko txapela jantzi zuen merezimendu osoz. Azkeneko buruz-burukoa Oihana Bartrarekin jokatu zuen. Gazte santuxuarraren bigarren postu horrek segida ematen dio orain arteko bere bertso ibilbide txukunari.



*"Bilboaldea eta Algorta  
dira bertsolari gehien  
aurkeztu duten  
eskualdeak"*

#### MAHATSORRIAK TARTEAN

Guztira hamabost izan dira Bilboaldeko bertso txapelketa honetara aurkeztu diren bertsolariak. Eurretatik asko mahatsorriak dira eta beste asko harreman zuzena eduki dute gure inguruarekin.



Txapeldun ordearekin hasiko gara. **Oihana Bartra** hamazortzi urte ditu eta, esan legez, Santutxukoa da. Kirikiño ikastolan hasi zen bertsoetan eta gaur egun Iñaki Aurrekoetxearekin dabil ikasten. Bizkaiko eskolarteko txapela birritan irabazi du eta Euskal Herriko txapelketan hirugarren gelditu zen.

Finalean **Iñaki Aurrekoetxea** bera ere egon zen. Santutxuko seme hori oso ezaguna da gurean hainbat urtez ibili delako bertso eskolako jardunean. Gaur egun Gernika aldean dabil eta bertso kantua apur bat utzita daukan arren, bertsolari gazteagoei eskolak ematen dihardu.

Finaleko hirugarren mahatsorria **Jurgi Garitagoitia** dugu. Karmelo ikastolan hasi zen bertsoetan. Hau ere, Oihana Bartra bezalaxe, Iñaki Aurrekoetxearekin



dabil ikasten. Adituek diotenez, azken hiru urteotan aurrerapauso handia eginda dago. Segurtasuna irabazi du eta badauka hobetzeko modurik.

**Joxin Iturrioz** ere aritu da bertsolari txapelketa honetan. Bera bezalako 'beterano' bat txapelketan ikustea nobedade politenetakoa izan da. Gurean lan handia eginda dago bertsozaletasuna bultzatzeko. Kafe Antzokiko saioan aritu zen.

Mahatsorriak ez izan arren, Marta Ortiz txapeldunak eta Matxalen Zabaljauregi finalistak badaukate eduki harremanik gurekin. Biak ala biak Mahatsorriko ikastoletan ikasitakoak dira, Martak Kirikiñon eta Matxalenek Karmelon.

### Oihana Bartra: "Bilbon badaude bertsolariak eta afizioa"

Oihana Bartra santuxuarra bigarren gelditu da Bilboaldeko bertsolari txapelketan, Marta Ortizen atzetik. Bertsolari mahatsorriak hamazortzi urte baino ez dauka eta hala ere kurrikulum polita batu du honez gero. Besteak beste, eskolarteko txapelketako Bizkaiko txapela birritan jantzi dago eta, esan legez, 'nagusiekin' debut egin eta Bilboaldeko bigarren postua lortu du.

Pozarren dago Oihana Bartra txapelketan lortutakoarekin. "Santutxuko kanporaketan lasaiago ibili nintzen, jendearen eta lagunengandik babesaz. Finalean, oster, gehiago igarri nuen urduritasuna", dio bertsolari gazteak. Marta Ortizen atzean gelditzeak poz itzela eman zion, jakinda gaur egun ez dagoela haren mailan. Eta gauzak ondo, lortu dituen puntuekin uda ostean abiatuko den

Bizkaiko txapelketarako txartela ere patrikeran eduki dezake. "Hori sekulako esperientzia litzateke niretzat, 'handiekin' batera ibiltzea", dio ilusioz.

Txapelketaz galdetuta, Oihana Bartrak partehartzaileen kopurua nabarmentzen du. "Bilboaldea eta Algorta dira bertsolari gehien aurkeztu duten eskualdeak. Horrek esan nahi du Bilbon badaudela bertsolariak eta, saioetan ikusi den legez, badagoela afizioa", argudiatzen du.

Bizkaiko txapelketari begira, Durango aldean ikusten du txapelaren jabea. "Sorpresarik ezean, Unai Iturriaga eta Igor Elortzaren artean egongo da txapela". Eta txapeldun mahatsorri bat noizko? "Polita litzateke, ezta? Dena dela, kontuz Arkaitz Estiballesekin, aurrekoan finalean sartu zen eta".

Salaketak Enkestak  
Txaskarrilloak  
**Otxarkoaga eta txurdinagan**  
**WWW.PA-YA.ORG**  
Berriak Herri mogimendua Euskal kultura  
Gure presok Pa...yak baditu alternatibak

Igazko urrian Euskal Herri osoko bazterretan ehunka lagun agertu ziran belarriak tente. Zertarako? Jakiteko gure kaleetan euskerea entzuten ete dan.

Ikerketearen ardura Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen (SEI) elkaretarena da. Euskal Herri osoko datuak ekainaren 7an jakinerazoko dabez. Guk Bilboko eta Mahatserriko datuak ekarriko doguz. Gurean, lehengo moduan segituten dogu: euskera gitxi entzuten da oraindino gure kaleetan.

# Euskera gitxi entzuten da gure kaleetan SEI elkarteak egindako kale neurketaren datuen arabera Begoña eta Euskerea

Hasi, Bilboko datuakaz hasiko gara. Entzundako berbetaldi guztien %4,58 izan ziran euskeraz. Datu hori orain dala lau urtekoa baino apurtxo bat altuagoa da (%4,52koa izan zan 1997an). Lau urteotan euskaldunon kopurua hazi baino ez dauala egin kontuan hartuta, kalean isla txikia euki dauala esan geinkez. Hori bai, lehenengo kale neurketa egin zanezik hona euskeraren erabilpena bikoxtu da. Izan be, 1989ko datua % 2,53 izan zan.

Adinari erreparatu ezker, umeak (2 eta 14 urte bitartekoak) dira euskeraz gehien dabilzanak. Hauxe da orain lau urteko datuak hobetu dauazan adin moltzo bakarra. Bilboko umeen arteko berbetatik %8,67 egiten da euskeraz, 1997an baino ia puntu bi gehiago. Eurak dira, jakina, gure huriburuko talderik euskaldunena.

Gainerako adin moltzoen datuak makaldu egin dira. Gazteen taldeak (15-24 urte bitartekoak) puntu erdi galdu dau (%4,49) eta zortzi urtetan argi eta garbi behera egin dau (1993an, %6,14). Cogorra da

hau esatea baina orain arte euskeraren motorra izan direnak, gazteak hain zuzen, gero eta gitxiago egiten dabe euskeraz.

Helduek be (25tik 64 urte arte) lehen baino apur bat gitxiago darabile euskerea (%4,49) eta zaharren kasuan beherakadea begi bistakoa da. Egia da, edozelan be, euskerea Bilbon gazteagotu dala eta adin altuko taldeen artean euskeraz dakitenak gero eta gitxiago dirala.

## MAHATSERRIAN BE, MAKAL

SEI institutuak eginko ikerketeak datu fidagarriak emoten dauz Euskal Herri osorako, herrialdeetarako, eskualdeetarako eta huriburuetarako. Bilbo auzoetarako, barriz, 'orientatiboak' baino ez dira. SEI elkarteko Olatz Altunak dinoskunez, "herri txikietan eta auzoetan inkestako datuak orientazio gisa hartu behar dira, ez gehiago. Berme osoko datuak eskurtzeko lan zabalagoa egin beharko genuke".

Zehaztapen hori eginda, 2001eko neurketearen emoitzak esaten deusku Begoña aldea dala gure



Udalerrria	Neurketa	Guztiz Erabil	Haur Erabil	Gazte Erabil	Heldu Erabil	Adineko Erabil
Bilbo	1989	2,53%	3,00%	2,30%	2,40%	2,40%
Bilbo	1993	4,33%	5,24%	6,14%	3,29%	3,82%
Bilbo	1997	4,52%	6,90%	5,12%	4,42%	1,80%
Bilbo	2001	4,58%	8,67%	4,49%	4,16%	1,22%

*"Euskera gehien entzuten dan auzoa Begoña da. Santutxu, ostera, oso baxu dabil"*

auzorik euskaldunena. Berau dogu Bilboko datuen ganetik dabilen alderdi bakarra. Begoñako portzentajea %5,5koa izan zan. Ez gara harrituko Begoñan euskaldunen portzentajea %20aren inguruan dabilela jakinda. Mahatserriko euskaldun gehien daukon alderdia da, baita euskera gehien egiten dauana be.

Ganerakoak makalago dabilta. Uribarrin %2,9ko datua agertuten jaku, orain dala zortzi urtekoa (%0,69) baina askoz be altuagoa. Bitarte horretan euskereak gora egin dauala esan leike baina, oraindino presentzia txiki-txikia dauko gure kaleetan.

Zer esango dogu Santutxuren ganean? Euskaltzale fama eta ospea dario betidanik auzo mahatsorri honeri baina errealtateak bestela dino. Euskerazko solasaldiak %2 baino ez ziran izan. Orain dala zortzi urteko datu ber-bera. Bilboko zenbakien erdia bez. Mingarria izango da hau esatea baina euskera gitxi, oso gitxi egiten da Santutxun.

Azkenengo datua Otxarkoagakoa da. Datu baxua da, jakina, auzo hori dalako gurean erdaldunena. 2001eko neurketean %0,3 baino ez. Orain dala zortzi urte be bardin antzean ebilen.

Datuok ikusita, euskerea irakatsi ez eze, euskeraren erabilpena sustatzeko garaia dala begi bistan dagoala emoten dau.

## NEURKETA 2001

Abando	9,7
Abusu	0,5
Begoña	5,5
Bilbo Zaharra	6,2
Deustu	3,7
Errekalde	7,4
Indautxu	3,2
Irala	7,2
Otxarkoaga	0,3
San Adrian	4,2
San Ignacio	2,1
Santutxu	2,0
Uribarri	2,9
Zorrotza	0,3

## SEI ELKARTEA

Orain dala hamahiru urte hasi zan Euskal Kulturaren Biltzarreak (EKB) lau urtean behin euskeraren kale erabilpenaren neurketa egiten. Behin EKB desagertuta, SEIk hartu dau ardura hori bere gain. Kale neurketak urrian egin ziran hiru egunez. Aste-gun batez arratsalde eta zapatu batean goizez zein arratsalde. Kasu guztietan neurketa egin ebenek aurretik zehaztutako ibilbide bat bete eben.

2001eko neurketako datu guztiak ekainaren 7an jakinerazoko dauz SEI elkarteak. Orain dala lau urteko datuak ikusi gura dauanak interneten daukoz kontsultagarri. Webgune honetara joatea baino ez dauko: [www.sortu.org/](http://www.sortu.org/) Bertan, datuak ez eze, ikerketea egiteko metodologia eta hainbat xehetasun topako dauz.

**Lanbroa**

**ARTESANIA LOIDI**

Santo Rosario, 1 (Santutxu)  
Tlf.: 94 473 10 65

**ANGEL HARATEGIA - URDAITEGIA**

Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

E G O Ñ E R A Z

E G O Ñ E R A Z

# Mahatsorri, konekta zaitez!

Matikon eta Santutxun KZguneak zabaldu dituzte interneten erabilpena bultzatzeko



Testua eta argazkiak: Itxaso Pérez

**Interneten ibiltzea zer den ez dakienari ez zaio aitzakiarik gelditzen honez gero. Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak elkarlanean, KZgune bi zabaldu dituzte mahatsorri guztiek sarean dohain murgiltzeko aukera eduki dezaten. Beren-beregi langabetuei, etxeko andreei eta jubilatuei begira jarri dituzte, eurak direlakoan gaur egun komunikazioaren teknologia berriekin arazo gehien daukatenak. KZgune horiek Santutxun eta Matikon daude. Gu Matikora hurreratu gara kontu hori zertan den zehatz-mehatz jakiteko irrikan.**

Duela ez aste asko Moraza plazan, 4. zenbakiaren behekoetan auzo etxea zabaldu zuen Bilboko Udalak. Bertan gazte informaziorako gunea, gaztelekua eta KZgunea batera daude. Azken honetaz mintzatuko gara, zer den, nori zuzendua, ... . Berez, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako kanpaina da, kasu honetan Bilboko Udalaren laguntzaz. "KZgunea" Interneteko zentro bat da, eta, hor, KZH@

proiektuak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak aurkituko ditu herritarrak.

Bere bitartez, informatikako doako zentro publikoen sarea eratu nahi da Euskal Erkidego Autonomo (EAE) osoan zehar, herritar guztiek Internetera sartzeko aukera izan dezaten. Zentroen sare hau "Euskadi Informazioaren Gizartean" planaren barruan kokatzen da, plan horren

helburua baita herritar guztiak modu askean eta dohain heltzea teknologia berrietara, tutoreen laguntzaz, "Internet denontzat" lelopean. Proiektua urte eta erdiko edota urte biko iraupena izango du. Plan horren barruan eta lehenengo fase gisa, 'Konekta zaitez' kanpaina ospetsua jarri zuten abian. Haren bitartez dirulaguntza politik eman zaizkie etxerako interneteko konexiodun ordenagailu berria erosi dutenei.

## IKASTAROAK

Herritarrari laguntza pertsonalizatua eskaintzen zaio, KZguneako ekipoak eta zerbitzuak errazago erabiltzeko. Baita teknologia-mailan egiten diren aurrerapenak ikusita, mintegiak eta berariazko prestakuntza-ikastaroak antolatu ere, egungo eta etorkizuneko gizartearen eskararen arabera.

Matikoko KZgunean eskaintzen direnak ondorengoak dira:


- ez dakitenentzat: 6 orduko ikastaroa
- zertxobait dakitenentzat: sakotze ikastaroa, 16 ordukoa
- internetez nabigatzeko: ordu bat edo biko mintegiak

Ikastaroak bi begiralek ematen dituzte, hamasei ordukoa izan ezik. Azken hori Egailaneko irakasle batek ematen baitu. Denak euskaraz eta gaztelez eskaintzen dituzte. Hala ere, inguru horretan gehiengoan erdaldun hutsa denez gero, gehienak gaztelez ematen dira.

## LANGABE, ETXEKO ANDRE ETA JUBILATU

Helburua jende guztiak internet ezagutzea eta erabiltzea bada ere, gizarteko hiru multzoei begira zuzentzen da gehin bat: jubilatuek, etxeko andreak eta langabetuek, hauek baitira teknologia berriak erabiltzeko aukera gutxien dituztenak.


Izan ere, talde hauek dira interneten gutxien dabilzanak, hala bitarteko ekonomiko urriagoak dituztelako nola



adinez teknologia berriekin hasteko arazoak daukatalako. Programa horrek hesi horiek hautsi nahi ditu ezelango gizarte sailik ez dadin gelditu komunikazio berrietatik aparte.

Orain arteko datuak kontuan hartuta, emakumezkoak dira gehien hurbiltzen direnak, 30 eta 45 adin artekoak. Jubilatuen artean ere andreak nagusi izan dira KZguneako erabiltzaileen artean. Egun arte 140 pertsona hurbildu dira, eta asko da kontutan izanik apirilaren 30ean atek zabaldu zituela.

Ordutegia goizez eta arratsaldean da, bederatzietatik ordubietara eta bostetatik zortzietara. Uztailean aldatuko da, goizez bakarrik zabalduko dutelako. Abuztuan, aldiz, itxi egingo dute.



**ASAPALA**  
KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabilza

**Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!**

Hemen gagoz:  
Iturriaga 55, 1. Ezkerra  
Tfnoa. : 944735448  
E-posta: asapala@eusnet.org

## Garraioak



Deitu:  
Jabi: 607 43 17 91  
Txema: 607 19 68 33

**Sugea taberna**  
Iturriaga, 92 Santutxu


## BASTERTXU



**TABERNA**  
Ricardo Bastida plaza

# 'Euskara mendian', mendira euskaraz joateko liburua

SANTUTXUKO MINTZA TALDEAK PRESTATUTAKO MENDI IRTEERAK ARGITARATU DITUZTE AEKK ETA 'BERTON'EK



**Euskara mendian**  
Santutxuko mintza taldea

**'Euskara mendian' liburua laster batean kalean egongo da. Santutxuko Mintza Taldeak (AEK) prestatu ditu 120 ibilaldiei dagozkien testuak eta marrazkiak. Euretarik batzuk 'BERTON'en argitaratu ditugu honez gero. Orain edizio txukun batean batuta kalean jarri dute AEKK eta BERTONek. Gure aldizkaria diruz sostengatzen duzuen guztiak dohain hartuko duzue etxean. Gainerako irakurleentzat ere eskaintza berezi bat egingo dugu.**

Testua: J. Larrazabal

Urte luzeetan eginiko mendi irteerak pape-retan jaso zituzten Santutxuko Mintza Taldekoek. Mendi tontor bakoitzera zelan heldu idatzi zuten eta, lagungarriago suerta zedin, bidean eginiko marrazkiak jarri zituzten alboan. Lan handia izan zen, hainbat urteetako mendi ibilaldiak egin ez ezik besteentzat ere 'egingarri' utzi nahi izan zituztelako.

Jakina, AEKrekin trebatutako euskaldun horiek euskaraz idatzi zuten, euren pasio biak uztartuaz: euskara eta mendia. Eta horixe dugu, hain zuzen, liburu berriaren izenburua, 'Euskara mendian'.

Santutxuko Mintza Taldekoek prestatutako mendi ibilaldiak lan eskergaren emaitza izan dira. BERTON aldizkariak 1998 urtean hasi zen zenbaki bakoitzean mendi irteera bana argitaratzen. Geroztik, hogeita hamarren bat fitxa agertu dira gure orrietan.

Edozelan be, euskaltzale mahatsorrioren lana askoz mardulagoa da eta horregatik argitaratzea eman behar zela pentsatu zuten AEKK eta BER-

TON aldizkariak. Izan ere, guztira 120 mendi irteera prestatu zituzten santutxuko Mintza Taldekoek. Lan itzel hori behar den moduan argitaratzeko eta mendizale euskaldunei eskertzeko moduko zerbitzu bat emateko liburua aukerarik egokiena zela pentsatu zuten.

### LIBURUA ZERTAN DEN

'Euskara Mendian' liburua 208 orri dauka. Azala pasta lodiaz eta koloretan egina dago. Bere baitan 120ren bat mendi txango egiteko gonbidapena eta datu zehatzak daude. Mendi ibilaldi gehien-gehienak Bizkaikoak dira, egileak mahatsorriak dira eta! Beraz, gure irakurleak esku-eskura edukiko ditu liburuko irteera gehientsuenak. Guztira, 84 dira Bizkaian barrena eskaintzen diren txangoak. Batzuetan tontorra oso ezaguna da baina beharbada ez hainbeste liburua dakarren ibilaldia. Esate baterako, Gorbeia mendira igotzeko sei ibilbide daude 'Euskara Mendian' liburuan, batzuk ezagunak eta beste asko, aldiz, gutxitan erabilitakoak.



**120 MENDI IRTEERA PRESTATU ZITUZTEN SANTUTXUKO MINTZA TALDEKOEK**

Bizkaikoez gain, liburuak Arabako hogeita mendi ibilaldi biltzen ditu. Bereziki erreparatu zioten egileek hain hurre egonda sarritan hain ezezagun zaigun herrialde horri. Besteak beste, Berretin, Orisol edo Batxikabo lako tontor ederretara iristeko bidea proposatzen dizkigute egileek.

Gainerako irteerak Gipuzkoara (zazpi) eta Nafarroara (lau). Euskal Herritik kanpora ere atera zitzaizkigun mendizale mahatsorriak, Burgos eta Cantabriako mendi tontor bina egiteko asmoz.

Mendi ibilaldi bakoitza fitxa baten moduan egokitu dute egileek. Batetik, testu idatziak igoera zelan egin azaltzen du, jakingarriak -iraupena, zailtasunak,

**GOJIAN S.C.L.**  
**LAN BERTIKALAK**  
 Pintura lanak etxaurre eta patioetan  
 Ke-irteerak eta Ur-hodiak  
 Eraikinetako edozein konponketa

**ANDAMIO BARIK**

**TELEFONOAK:**

**630 08 09 38**  
**659 45 16 22**

**Bikoitz**

ARLOPAK ★  
 ZILARRA ★  
 OPARIAK ★

Part. Arsuaga SANTUTXU  
 Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO  
 bikoitz@euskalnet.net / www.euskalnet.net/bikoitz

**MESÓN EURETXE**

Santutxuko poteo gunean

U  
D  
U  
G  
U  
N  
D  
U  
G  
U  
N  
D  
U  
G  
U  
N

U  
D  
U  
G  
U  
N  
D  
U  
G  
U  
N  
D  
U  
G  
U  
N

**'EUSKARA MENDIAN' LIBURUAK  
208 ORRI DAUKA. AZALA PASTA  
LODIAZ ETA KOLORETAN  
EGINA DAGO**

bidean topatutako gauza ikusgarriak, landaredia,... - ahaztu barik. Ondo-ondoan, testu bakoitzari dagokion irudi zehatz argigarria aurkituko du irakurleak. Eta fitxa gehienetan marrazki eder bat ere agertzen da, bideak emandako detailtxoren bat gogora ekartzeko edo.



Lana biribiltzeko eta Gorbeiarri eskainitako arreta bereziaren ondorioz, Bizkaiko mendirik altuenaren gaineko historia labur bat ere badakar 'Euskara mendian'ek.

**LIBURUA ZELAN LORTU**

'Euskara Mendian' liburua AEKren eta BERTON aldizkariaren bultzadaz argitaratu da. Horregatik, 'BERTON'eko irakurleek tratu berezia hartuko dute. Lehenengo eta behin, BERTONek hain beharrezko duen urteroko diru laguntza (harpidetza) ordaintzen duzuen guztiok dohain hartuko duzue etxean datozen egunotan. Gauza jakina da urtariletik aurrera BERTON dohain banatzen dela. Hala ere, lehenengo harpidedunik gehien-gehienek -ia denak ez esateagatik- hain beharrezko den diru laguntza hori mantentzea erabaki dute. 'Euskara mendian' oparitut aldizkariari ematen diozuen babes garrantzitsua -hil ala bizikoa guretzat- eskertu gura dugu.

Halaber, orain arte diru laguntza eman ez eta ematen hasi nahi duenak ere opari hartuko du liburua. Bestalde, BERTON etxean dohain hartzen duzuenok ere modu berezian eskuratu ahalko duzue liburua. Izan ere, orri honetan bertan dagoen kupoia Arbidea kaleko AEKko Euskal Eskolan aurkeztuz gero, 5 euro ordainduta 'Euskara mendian' eskuratuko duzue.


Azkenik, gainerako erosleentzat liburua 7 eurotan jarriko da salgai. Liburuaren argitaratzailea Batana Batu kultur elkar-tea da eta Lasarte-Oriako Antza moldiztegia inprimatu da.



**berton**

Kupoi hau Santutxuko AEKn (Arbidea 21) aurkeztu duenari **BI EUROKO DESKONTUA** egingo zaio 'Euskara Mendian' liburua erosterakoan.  
**BERAZ, 5 EUROTAN SALDUKO ZAIO.**

elkarrizketa



**Francis Diez:**

*"Abestiak idazten hasi nintzen ez nintzelako gauza beste abeslarienak gogoratzeko"*

Doctor Deseo taldeak 10. hamarkadatik dabil eszenatoki gainean eta, oraingoa, taldeko abeslari Francis Diez mahatsorriekin aritu gara hizketan oraintsu ateratako zazpigarren diskoaren aurkezpena aitzakiaz hartuta. Ogia, mendia eta musika dira Uribarriko mutil honen dedikazio nagusiak eta hainbat lekutan bizi ondoren berriro itzuli da hazten ikusi zuen auzo periferikora. Urteetan aurrera joanda ere bizkor dabil eszenatoki batetik bestera, goizez okinarena egin eta guez kontzertuetan topera dabilen mahatsorria.

Testua: *Arrate Díez*  
Argazkiak: *Iñigo Azkona*



### Ze harreman duzu orain Uribarri auzoarekin?

Gaur eguneko harremana batez ere sentimentala da, ez baitut denbora askorik ematen bertan. Uribarrin bizi izan naiz txikitatik, baina hemeretzi urte nituela etxetik alde egin eta ordutik hona hainbat lekutan bizi izan naiz. Orain berriro bizi naiz nire haurtzarora bizi izandako leku berean, Uribarrin.

### Zer du faltan eta zer soberan Uribarririk?

Nire ustez auzoaren kontzeptua galduz doa, nik gogoratzen dut txikitik asfaltatu gabeko zonaldea zenean, auzo edo herri giroa sumatzen zen, Bilboko auzo periferiko horietako bat zen. Orain, aldiz, urbanizatuago dago eta jende pilo bizi denez, askoz despertsonalizatuago dago auzoa, lehen denok elkar ezagutzen genuen. Gainera, mendia ondoan geneukan eta zonalde berdeagoa zenez, ume baten tizat leku ederra zen.

Uribarririk soberan duena dagoen eraikin kopuru handia da.


### Zelakoa da eskenatokiak kanpoko Francis?

Oinarritzko hiru gauzatarra dedikatzen dut nire denbora gehiena. Batetik, ogia egiten dut, okin artisaua naiz, ogi integrala egiten dut baserri galdu batean eta okin lanetan hemeretzi bat urte daramatzat. Beste lagun batekin batera ogia egin eta gero herrietan banatzen dugu. Bestetik, eskalatzea oso gustukoa dut, hamalau urte nituenetik alpinismoa egin eta mendira joaten naiz ahal dudanean. Gainera, Doctor Deseorekin jotzeari uzten diogunean, urte betez edo, horretara dedikatzen naiz batez ere. Esaterako, azkenekoz Italiako Dolomita mendietan egon nintzen. Eta nola ez, ogia eta mendiaz gain, musikak betetzen du nire bizitzako esparru inportantea ere.

### Francisen bizitzan zelako garrantzia du euskarak? Eta azken disko honetan?

Orain urte batzuk, maisu ikasketak egiten nituenean, hiru urtez egon nintzen euskara ikasten. Garai hartan ez zegoen euskara hutsez ikasterik eta eskolaz kanpoko orduetan pertsona batzuk gure kontura euskarazko klaseak jasotzen genituen. Baina hemeretzi urte nituela etxetik alde egin nuen eta maisu ikasketak ere handik gutxira utzi nituen, beraz ez nuen karrera amaitu. Egia esan, ez nuen nire burua funtzionariotzat ikusten eta egoerak ere ikasketak alde batera uztera behartzen ninduen.

Hortaz aparte, ez dut abilezia handirik ere hizkuntzatarako eta gainera memoria arazoak ere izaten ditut alde horretatik. Egia esan, abestiak idazten hasi nintzen ez nintzelako gauza beste abeslariaren kanta gogoratzeko eta erabaki nuen neuk asmatutakoak ez nituela hain errez ahaztuko.



Bestetik, taldetik gure erabateko babesa ematen diogu euskarari eta, gutxi bada ere, disko bakoitzean abesti bana euskaraz egitea ezinbestekoa bihurtu da. Hala ere, euskarazko abestiak sortzeko laguntza izaten dugu eta azken disko honetan adibidez, Sonia Gonzalez aritu da gurekin abestiaren konposaketan.

### Aukeratzea zaila bada ere, zein kontzertu duzu gogokoena?

Aukeratzea ezinezkoa egiten zait, batzuk gauza onengatik gogoratzen dituzu, baina badira ere gai negatiboen gogoratzen ditudanak ere. Orain, disko berriarekin gogoan dauzkadan kontzertuak azkenaldian egindakoak dira. Gasteizko Azkenen edota Bilboko Kafe Antzokian egindakoetan adibidez, oso giro ona eta jendez gainezka egon ziren eta horrek erabat emozionatzen zaitu.

Orokorrean kontzertuak hobeago edo txarrago aterako zaizkigu, baina ni denetan topera joaten naiz, eta oso

argi daukat hori horrela sentitzen ez dudanean edota ezin dudanean egin, orduantxe izango da erretiratzeko momentua.

### Zer du berezi "suspira...y conspira" azken diskoak?

Diskorik intimistena edo introspektiboa da zentzu guztietan, bai eduki aldetik zein musika eta soinu aldetik. Honek ez du esan nahi nire barneko gauzak kontatzen ditudanik, intenzioa ez baita hori. Hau da, kantatzen ditudanak nire barruan, zure barruan edota guztion barruan daudenak dira.

### Eta zer eragin du horrek publikoarengan?

Entzuleak zelan jasotzen duen egia esan, ez dakit, eta gainera ez nuke kontrolatuta eduki nahi. Jakin badakit letra batzuk errealistagoak direna eta norabide bakarra dutena, baina beste batzuk norberaren interpretazio propioa dute, interpretazio librea dute. Egia esan, emozioak bilatzea da disko honek aurrekoekin duen ezberdintasuna.

na. Eta gainera, soinu aldetik gitarraren soinu integratuagoa dago soinu elektronikoen. Orokorrean, kalitate handiagoa lortu dugu disko honekin, nire ustez.

Azken disko hau grabatzeko era ez da izan aurreko diskoena modukoa. Beste batzuetan hogeitau eguneko grabazioak izan dira, denak jarraian eta atsedunik gabe, estudioan sartu eta disko amaitu arte egindako saioak izan dira. Oraingoan, aldiz, "Platero y Tu" taldeko Iñakiren estudioan grabatu dugu, eta laguntza handia izan dugu, soinu teknari onak, ordutegi aldetik askatasun handiagoa... eta guzti hori emaitzan ere nabari daiteke. Alde horretatik, grabaziorik onenetakoa izan da, presio gutxiagorekin, eta lagunarteko giroan.

### Zelako hasiera izan du disko berriaren aurkezpen jira?


Disko berria ateratzen duzunean ez dakizu inoiz zelako arrakasta izango duen, baina orain arte egindako kontzertu guztietan jendez leporaino aurkitu ditugu eta benetan poztu gaitu horrek. Bilboko Kafe Antzokian, esaterako, bi egunetan jarraian jo genuen eta bietan bete zen, beraz, ezin gaitetzke kexatu.

### Abestien letrak sortzeko zer inspiratzen zaitu?

Ez dago inongo trukurik, printzipioz nire inguruarekin zerikusirik duen guztiaz aritzen naiz, beti ere gauza ezagunekin, ez naiz ezagutzen ez dudan gauzez aritzen. Emozioz jositako munduak inguratzen gaitu, baita gai sozialarekin zein politikoarekin ere lotzen gaituen munduan gaude, eta inspiratzen nauten gauzak inguru horien barne aurkitzen ditut. Lehenik beti melodiak lantzen ditut eta hortik aurrera hitz zein esaldiekin jotzen dut. Batzutan burura datozkizun gauzak apuntatzen ditut, baina orokorrean, orduak eta orduak eman behar ditut ea zer aterako zaidan.

### Eta abestiek duten kutsu poetikoa nondik datorkizu?

Ez dakit oso ondo nola lortzen dudan, lan egiteko estilo bat bezala hartu dut. Beno, gazteagoa nintzenean eta musikarekin hastean, Boa Dylan-en jarraitzaile amorratua nintzen eta berarekin batera beste abeslari askorena ere, esaterako, Xabier Lete eta hauena. Eta euskaraz gutxi ulertzen nuen eta ingeleraz are gutxiago, ba Dylan, Cohen, The Doors, eta beste askoren itzulpenak irakurtzen nituen. Horrez gain, poesia irakurtzaletasuna ere badut, eta Machado, Lorca eta Hernandez batetik, eta Rilke bestetik irakurtzen ditut. Hala ere, ez nago poesien buru-belarri sartuta eta askotan ingurukoek gomendatzen dizkidate liburuak. Musikarekin gauza bera gertatzen zait, lagunak ditut irratan lanean eta askotan haiengana zuzentzen naiz edo ta haiek esaten didate zein talde, disko, letra edo melodia entzun.



Uste duzu Doctor Deseo asko aldatu dela 80. hamarkadatik hona?

Nire ustez, eboluzio pertsonala izan dugu eta horrekin batera eboluzio musikala ere izan dugu. Gustuen aldetik ere aldaketak eduki ditugu, hainbeste musika entzun eta gero influentzia handia izaten dugu. Nik denetarik entzuten dut, musika ezberdin asko baina bakoitzetik gutxi entzuten dut. Adibidez, batzutan erosi izan dut disko bat bakarrik baxuaren linea gustukoa dudalako eta abestiak ez zaizkit gustatu. Edota kontzertuetara joan izan naiz eta kontzertu osoa egon gitarraren pedalei edo beste ezeri begira eta ez naiz beste ezertaz ohartu, baina beno.

Eta publikoaren aldetik zer nolako aldaketak nabaritu dituzue?

Eboluzio handia ikusi dugu, kontuan izanda gu hasi ginenean euskal rock erradikalaren garaia zela eta gaur

egun aukera askoz gehiago dagoela. Eta Euskal Herrian bertan denetarik aurki daiteke. Gaur egun, tekno, rock&roll klasikoa, hip-hop, metal, folk,... denetarik dago.

Publikoan ere denetarik dago, eta niri jende nagusitxoak ikusteak ere ilusio handia egiten dit. Batzutan amasema kontzertu berean aurki ditzakezu. Publiko berria ere etortzen da eta hori gauza ederra da.

**Disko berri bat atera, 30 kontzertu egin eta ondoren urtebeteko atsedenaldua... honelako eskemarekin zer, Doctor Deseo noiz arte?**

Ez dugu inoiz ere geroa planteatzen, gerta daiteke azkena izatea edo azkenaurrekoa edo...auskalo! Orain arte ondo joan zaigu, beraz, publikoa pozik badago, guk animatuta jarraitzen badugu eta sormen gaitasuna mantentzen badugu, ba... aurrera. Behin horrelako zeozer falta zaigunean ba, agur esan beharko. Baina oraindik oso ilusionatuta gaude eta ez dugu etsiko.

#### ZORTZI GALDERA LABUR

**Film bat:** Blade Runner

**Liburu bat:** "Cartas a un joven poeta" (Rilke)

**Izen bat:** Nerea

**Kanta bat:** Like a Rolling Stone (Bob Dylan)

**Herri bat:** Bilbo

**Janari bat:** Patata tortilla, gutxi eginda eta kipula askorekin

**Hondartza ala mendia:** Mendia

**Amets bat:** Hurrengo disko, disko ideala izatea

## Interneten ibiltzen zara? Zertan?



AMAIA  
(BEGOÑA)

BAI, ASKOTAN GAINERA. IA EGUNERO EGOTEN NAZ TXATEATZEN. NIRI BEHINTZAT GUSTATEN JAST. INFORMAZIOA BATZEN DOT ETA BATEZ BE NEURE LAGUNEKIN HITZ EGITEN DOT 'MESSANGER'EGAZ.




DABID  
(SANTUTXU)

EZ DAUKAT BAINA GUSTATUKO LITZAIDAKE. ESKOLAN ERABILTZEN DUGU. GAUZEN BILA IBILTZEN GARA, INFORMAZIO BILA. TXATEATU, EZ DUGU TXATEATZEN.



LEIRE  
(SANTUTXU)

BAI, TXAT ERABILTZEN DUT ETA WEB ORRIAK IKUSTEA ERE GUSTATZEN ZAIT. INFORMAZIOA BILTZEN ERE IBILTZEN NAIZ.



INIGO  
(SANTUTXU)

EZ DAUKAT INTERNET. EZ DAUKAT INTERESIK EZ INTERNETEN EZTA ORDENAGAILUAN ERE.



ANA  
(ETXEBARRI)

EZ. EZERTARAKO BEZ. OSO GUTXITAN IBILTZEN NAIZ. EZ ZAIT INTERESATZEN.



SANDRA  
(ZAZPI KALEAK)

BAI, TXAT ETA MUSIKA JAISTEKO, MP3 ARTXIBOAK HARTZEKO. ETA LANERAKO ERE BEHAR IZATEN DUT.



UNAI  
(TXURDINAGA)

INFORMAZIO BILA NABIL BETI. EGUNERO EZ NABIL BAINA SARRITAN BAI. TXATEATAN EZ NAIZ SEKULAN SARTU.



ASIER  
(TXURDINAGA)

BAI. BATZUTAN ETXEKO LANAK EGITEKO ERABILTZEN DUT ETA BESTE ASKOTAN NIRE LAGUNEKIN JOKATZEKO.

### Eta Artxanda albo batera jarri zen

#### Hiru urte lanetan eman eta gero Bilbo eta Txorierri arteko tunelak zabalik daude

*Maiatzaren 24ko arratsaldeko bederatzietan hasi ziren lehenengo autoak Artxandako tunelean barrena ibiltzen. Hiru urteko obrak, milaka euro gastatuta eta lan istripu larri bat gertatu*

*ziren egitamu erraldoi hori egia bihurtu aurretik. Harrez gero, Salbetik Sondikara lur azpitik joan liteke sos batzuk ordainduta. Salbetik Deustura, ostera, musutruk.*

Paulo Zamarripa idazle txorierritarren bertso batzuk hautatu dituzte Artxandako tunelen arduradunek plaka batean zizelkaturik uzteko. Bertso horiek Artxanda, Txorierri eta Bilboren arteko harremanaz dihardute eta bion arteko harremana errazteko Artxanda noizbait albo batera jarriko ote den ideia darabilte. Tunelek egia bihurtu dute asmo hori Artxanda bere tokian utzita.


Maiatzaren 24k eguerdian EAEko, Bizkaiko eta Bilboko agintari nagusiak agertu ziren Salben inaugurazio ekitaldian parte hartzeko. Bostehunen bat gonbidatuekin batera Artxandako tunelean barrena ibili ziren Bilbo eta Txorierri arteko lotura berria zehatz ezagutzeko asmoz. Baina benetako inaugurazioa iluntzeko bederatzia aldera izan zen. Salbe aldean jende asko batu zen lehenengo herritarrik igarotzen ikusteko. Jose María Ipiñazar izan zen Artxanda lur azpitik zeharkatu zuen lehenengoa.

Tunel sareak hiruki edo triangulu itxura du. Salben tunel bi elkartzan dira. Batetik, Salbetik Sondikara doana, ordaindu beharrekoa. Bestetik, bertatik Deustuko Ugaskora doan tunela daukagu. Bide hori doan egingo du auto gidariak. Hirukia Ugaskotik Txorierrira doan tunelekin ixten da.

#### HERRITARREN ERANTZUNA

Esan bezala, inaugurazio ekitaldiak jende askoren interesa biztu zuen. Hainbat lagun hurreratu zen Salbe aldeko tunel ahoetara lehenengo une horiek bertatik bertara jarraitzeko asmoz. Orokorrean, bertan ibilitakoen artean aldeko iritziak ia erabatekoak ziren. Obraren handiari erreparatuaz zein ekarriko dituen abantailak kontuan hartuaz, gehien-gehienok Artxandako tunelak goraiatzan zituzten.

Autoekin sartu-irtenak egin zituztenak ere pozik azaldu ziren. Salbe-Sondika zatia lur azpitik eginda zetozenak minutu bakar batean beste aldean egoteagatik harri-



tuta bezain pozarren agertzen ziren. Euren kexa bakarra, jakina, bidesaria. "Diru asko izango da tunela sari erabiltzen baduzu", zioen Uribarriko gazte batek. Izan ere, Sondikan egiten ei du behar eta egunero joan nahi izanez gero...

Poz-pozik zeuden denak Salbe-Ugasko tunelarekin, dohain jarri

dutelako. "Bazen garaia -zioen Begoñako andre batek-Begoñatik Deustura joateko ibaia birritan ez pasatzeko". Orain arte, gauza jakina da, Salbe zubia eta Deustuko edo Euskalduna zubiak igaro behar zituen Mahatserriatik Deustura joan gura zuenak.

Ordainketekin kexatzen direnen penak ez ditu leunduko baina lana erraztuko die sikiera: teleordainketa jarri dute Artxandako Tunelen arduradunek. Txartel bat izango da, autoaren aurreko kristalean inkatuta eramatekoa. Makina batek segundo hamarrenetan irakurriko du eta, ondorioz, gidariak ez du gelditu beharko.

### Zurbarango auzoak aparkaleku berriaren aurka

#### Zumaia kaleko landa salbatu gura dute bertako bizilagunek

Zurbaranen bertan dagoen ikastetxearen parean Zumaia eta Bakio kaleak daude. Leku aldapatsua eta kale estuak. Beribilak aparkatzeko zailtasunak, ia Bilbo osoan gertatzen den bezalaxe. Eta Bilbo osoan lez, hor ere berdegune gutxi. Hortaz, kexu dira auzokideak, dagoen belar apurra kenduko ote dieten ere.

Izan ere, kale bien artean dagoen etxaldean lorategi zabal bat dago, eta horretan hain zuzen maiatzaren 15etik aurrera parking bat eraikitzeko lanak hastekoak dira. Antza, garai batean lur horiek Diputazioak Bilboko Udalari emandakoak-edo izan ziren, baina ez zuten aurreikusten etxerik eraikitzea. Urteetan zaborregia izan dena auzokideek eurek lorategi bihurtu dute, eta orain urte batzuk, aparkalekuen beharra hasi zenean, bertan lur azpiko aparkalekua egiteko proiektua egin zen.

Lur azpitik hainbat solairuko aparkalekua egitea pentsatu zuten, baina udal teknikariek halabeharrezko azterketak burutu ostean halakoa egitea ezinezkoa edota arriskutsuegia gerta zitekeela erabaki zuten, lur horien azpitik Artxandatik behera datorren erreka igarotzen duelako.

#### PROTESTAK

Ondorioz, Udalak bestelakoa egitea erabaki zuen, eta solairu bakarra lur azpitik eta haren gainean aparkatzeko lekuak ere. Denetara 122 plaza. Baina era honetara beheko aldean dauden etxeetako leihoak horma baten aurrean geratuko lirakeke. Gainera, barruko solairuetako gasak kanporatzeko gailuaren zaratak, baita gasak ere,... eragozpen horiek guztiak ikusten



Zurbarango auzoek landa nahiago dute, aparkalekua baino.

dituzte auzokideek eratu duten batzordekoek horrenbeste ez diren plaza kopururako.

Batzorde horrek 120 sinadura bildu eta udaletxera eraman zituen euren kexua adierazteko, Udalari presio apur bat egitekotan. Arduradunekin biltzekotan ziren maiatzean, lanak hasi baino lehen. Gainera, inguruetako etxeetako leihoetan kartelak eskegi dituzte euren protesta azaltzeko. Landa nahiago dutela esateko, aparkalekua baino. Momentuz, lorategiak bere lekuan segitzen du.

1995ean orduan ez bagenuen erabaki horren berririk?"

#### Joseba Barandiaran irakaslea hil da

Asko izan ginen igandean, maiatzak 19, bilbotar baten ezbeharrak jaso genuenok telebista eta irratiaren bidez. Gau arte ez genuen jakin izan pertsona hori Joseba Barandiaran izan zenik. Telefonoak etengabe jotzen ibili ziren entzundakoa ezin sinisturik. Pio Baroja eskolako irakasleak Huescako Viandiko sakanean behera amilduta bizia galdu zuen. Saminak ezagutzen zuten guztiak hartu zituen eta berehalaxe omenaldi xume bezain hunkigarria egin zioten astelehenean bertan eskolan. Saminean bat egiten dugu AEK, Kirikiño ikastola, Pio Baroja eskola eta familiarekin.

#### JUANLU CAMARERO ETA IMANOL TXABARRI PRESOEI ONGI ETORRIAK

Maiatzean zehar bi dira askatutako preso mahatsorriak. Batetik, Santutxuko Juanlu Camarero libre gelditu da Espainiako kartzelatan ia sei urte eman eta gero. Lehenengo ongi etorrian hirurehun lagun eduki zituen zain Sei Izar plazan. Astebete geroago omenaldia egin zitzaion, baita herri afaria ere. Bigarrena Uribarriko Imanol Txabarri izan da. Urte askotxo eman ditu etxetik kanpo, azkeneko bederatzia espetxean. Maiatzaren 18an bere auzokideek ongi etorri beroa eskaini zioten Uribarriko eskoletako landan. 'Euskaria' abesbatzaren kantuen artean auzoko elkarte eta gizarte eragileen opariak hartu zituen Imanol Txabarri. Ospakizuna behar den moduan amaitzeko inddaba jana egin zuten sakramentu guztiak.

#### UME OLGETAK IKASTEN.

Euskararen normalkuntzarako arlo garrantzitsua da umeen aisialdia jorrotzea. Hori dela eta Txuridinagako Berritzeguneak, Loly de la Fuenteren eskutik, umeen jolasen gainean ikastaro bat antolatu eta burutu du. Bertan Mahatserriko hainbat irakasle parte hartu dute. Itxaso Arrieta irakaslea euskal tradizioetik eta batez ere Bizkaiko tradizioetik edanda hamaika kanta eta jolas irakasten ahalegindu da. Irakasleek adierazi dutenez labur egin bazaie ere poz pozik ibili dira. Argazkian Itxaso Arrieta, Loly de la Fuente eta irakasle batzuk daude saio batean.



MAHATSBERRIAK

MAHATSBERRIAK

# Gas eztanda batek pisu bat birrindu du Zurbaranbarrin

## Leherketa gas naturalaren ordeztu bitrozeramika elektrikoa gaizki jarri izanagatik gertatu zen

Zauritu arin bi eta kalte material larriak izan ziren maiatzaren 23ko goizaldean Zurbaranbarri kaleko bigarren zenbakian gertatutako eztandaren ondorioak. Etxe baten barruan gertatuta-

Testua eta argazkiak: **BERTON**



Maiatzaren 23ko goizaldea ez dute erraz ahaztuko Zurbaranbarri kaleko bigarren zenbakiko auzoak. Ordubiak jota ziren eztanda itzela gertatu zenean. Bederatzi solairuko seigarren C pisuan gasa lehertu eta etxe osoa suntsitu zuen. Barruan une horretan hiru lagun zeuden, ama eta seme-alaba. Zauri arinekin bazen ere, onik atera ziren etxetik.

Leherketak etxeko hormak birrindu eta kalera jaurti zituen. Inguruetako beste sei pisutan ere kalte material handiak eragin zituen eztandak. Eta etxearen behealdean aparkatutako hogeita bat auto ere hondatu zituen.

Lehenengo ikerketen haritik, gas leherketaren arrazoiak instalazio gaizki egin izanean dautza. Izan ere, etxe horretako bizilagunek gasezko sukalde bitrozeramika elektrikoaz ordeztu zuten. Hala eta guztiz ere, Bilbogas enpresako arduradunek jakinarazi dutenez, aldaketa ez zen behar den moduan egin eta, ondorioz, gas hodia ez zen itxita gelditu. Gas jarria eten ez eta, azkenean, eskaratz inguruan batutako gasa lehertu zen.

### ETXETIK KANPO

Behin leherketa gertatu eta segituan suhiltzaileak eta udaltzainak azaldu ziren eta bederatzi solairuko etxea hustuarazi zuten. Berehala udal teknikariak lanean hasi ziren eraikin osoaren egoera zein zen eta behera etortze-

ko gas leherketak pisu bat zeharo birrinduta utzi zuen. Gainera, inguruetan ere kalte handiak eragin zituen baita behean aparkatutako auto asko kiskali ere.

ko arriskurik ote zegoen zehazteko. Bitartean, etxetika ateratako bizilagunek Zurbarango auzo-etxean hartu zuten ostatu. Lau ordu geroago, goizaldeko seiak aldera, etxeetara itzultzeko baimena eman zitzaion, behin etxe-ko egituraren kalterik ez zegoela baieztatu eta gero.

Dirudienek, eztandaren uhina etxetik kanporantz abiatu zen eta, ondorioz, etxe barruko kalteak, larriak izanik ere, ez dira izan leherketaren tamainakoak. Etxeko balkoiko burdinazko ateak, esate baterako, bertatik ehun metrotara agertu zen, eztandaren indarraren indarraz. Zorteak, beraz, kalte pertsonalak saihestu zituen.

Hala ere, kalte materialak ordaintzerakoan arazoak sor daitezkeela ematen du. Izan ere, leherketa nozitu zuen pisuko aseguru etxeak jakinarazi duenez, bere bezeroa ez da izan eztandaren eragilea eta, ondorioz, ez du bere gain hartuko gainerako kalteen ordainketa. Ikusteko dago, beraz, norik ordainduko duen triskantza hori.



# Etxe garestiak baino ez Etxebizitzaren arazoan murgilduta dabil 'Ireki' plataforma

Gaia mamitsua etxebizitzarena, datuak ikustea besterik ez baitago. Mamitsua eta kezkatzeko ere. Berau jorrazteko plataforma bat eratu da Bilbon, non giza elkarte ezberdinak batu diren hortaz lan egin eta proposamenak kale-ratzeko. IREKI plataforma da hain zuzen, eta Mahatserriko taldeei dagokienez, Urribarriko Gure Etxea auzo elkarteak eta Santutxuko gazte elkarte batek parte hartzen dute, beste batzuen artean.

Etxebizitza izatea eskubidea den unetik berau bete dadin lan egitea da plataformaren helburu nagusia. Egiten duen galdera zuzena da oso: Giza Eskubideen Gutunean etxebizitza izatearen eskubidea jasota badago (25. artikulua), zergatik ez da betetzen, bada?

Gure hirian eta bizi garen inguru honetan etxe bat eskuratzea norberaren soldatarekin baldintzatuta dago, hau da, diru sarrera maila ez txikia izan behar da aukerarik izan ahal izateko. Ildo horretatik, kontuan hartzen da zein den pertsona horren lan egoera, kontratu mota... Hona hemen hainbat datu zerrenda ofizialetan etxebizitza bat noiz hartuko zain dauden pertsonen gainean:

<b>241.971 pertsona</b>	lan egiteko adinarekin	
111.906 pertsona	lanean	% 46,2

kontratuen iraupena	
3 hilabete baino gutxiagoak	% 78,4
3 - 12 hilabetekoak	% 21
12 hilabete baino luzeagoak	% 0,24

Zein da honetatik atera daitekeen ondorio nagusia? Pertsona gehienak prekaritate osoan badaudela. Bigarren ondorio bat izan daiteke kontratatzeke era hauek jendea bazterketa sozialerantz eramaten dutela eta, beraz, etxebizitza eskuratzeko are aukera gutxiago izatera ere.

Horretarako Bilboko etxebizitza libreen batz besteko salneurria besterik ez da begiratu behar: 30 milioi. Alokairuzko etxebizitzaren prezioa ere ez da makala: 98.000 pzta/hileko (588,992 euro/hileko). Bilbon 20.600 etxebizitza hutsik daude, 20.000 Udalak zentsatuta.

Egun, etxebizitza arloan Bilboko Udalak etxebizitza libreak bultzatzen ditu gehien bat, eta ez Udalarenak berarenak edota babestutakoak. Honela, une honetan eraikitzen ari dena honako hau da:

8.000 etxebizitza eraikitzen ari da					
udal etxebizitza	libreak	babes publikoko etxebizitzak pribatuak	babes publikoko etxebizitzak publikoak	Sozialak	
				konzertatuak	publikoak
0	5.682	1.051	217	257	469
% 0,0	% 74	% 13,7	% 2,9	% 3,4	% 6,1
	25 M pzta baino gehiago	20M pzta baino gehiago	15M pzta baino gehiago	14M pzta	14M pzta

Aurreko datuak eta hauek ikusita, IREKIn ustez etxebizitza eskubidea aplikatzea ezinezkoa da. Eskaera eta eskaintzaren merkatuak agintzen du eta horrela eskubidea beratzea ezinezkoa da egun.

Alokairuaren inguruko datuak, Europan, 1995 urtean

EAE	% 6,6
Estatu Espainarra	% 14
Estatu Frantziarra	% 38
Danimarka	% 42
Herbeherak	% 53
Alemania	% 62

### BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZARAKO MAILEGUA ESKURATZEKO BETEBEHARRAK

- Ekonomikoki "solvente" izatea, hau da, urteko 1,5 M pzta soldata iraunkorra izatea.
  - 25 urte baino nagusiagoa izatea.
  - Bikotearekin bizitzea (zein bikote mota?)
  - Maileguan eskatzen diren 100 pezetatik 170 pzta itxuli behar da!
- Bakoitzak bere ondorioak atera ditzala.

### IREKIk PROPOSATZEN DITUEN GUTXIENKOAK

- 1.- Etxebizitzaren arazoari irtenbidea emateko beste biderik badago: udalek lur publikoak eskaini behar dituzte etxebizitza publiko eraiki dadin.
- 2.-Alokairuzko etxebizitza publikoa sustatu.
- 3.- Soldataren % 15eko gehieneko alokairuak izatea.
- 4.- Egun dauden alokairuzko udal etxebizitza kopuruari eutsi, eta ez saldu, egin nahi duten bezala.
- 5.- Zerga berezia ezarri 3 urtez baino gehiago hutsik dagoen etxebizitzaren gainean.

BERRIKARRIAK

## KARMELOK MOBILIZAZIOAK HASI DITU IKASTOLA BERRIA SANTUTXUN EGIN DEZATEN

*Instituzioek ez dute oraingoz Hermanitasen eraikitzeke baietzik eman nahi*



**Karmelo ikastolak mobilizazioetara jo du behar dituen lokal berriak Santutxun bertan eraiki ditzaten eskatzeko. Ikastolak Hermanitas de los Pobresen ondoko orubean nahi du baina Bilboko Udalak oraingoz ezetzik borobilenaz erantzuten du. Maiatzaren 17an hasitako manifestazioek segida edukiko dute ekainean ikastolari irtenbide egokia eskaini ezean.**

**Testua: H.Ortega  
Argazkia: Iñigo Azkona**

**M**aiatzaren 15ean batu ziren, azkenean, arazo honetako hiru alderdiak. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailaren izenean Koldo Arrese eta Gaizka Gabantxo azaldu ziren. Bilboko Udalararen izenean, oster, Hirigintza zinegotzia Ibon Areso (EA) eta Hezkuntza zinegotzia Jose María Uribarri (EA). Ikastolaren izenean, zuzendaritza taldekoak eta gurasoak agertu ziren.

Ezetzaren arrazoiak Ibon Aresok adierazi zituen. Hirigintza zinegotziak Hermanitas de los Pobres orubean ikastola bat egiteko behar adina tokirik ez dagoela argu-

diatu zuen. Gainera, egitekotan bost pisutako eraikina egin beharko zela eta altuegia izango zela nabarmendu zuen. Azkenik, Atxuriko jubilatuek ere ikastola egitearen aurka agertu direla esan zuen.

Hala ere, udal arduradunak ez ziren esku hutsik azaldu. Ibon Aresok Mina del Morro eskaini zuen, "baina -Karme Aurrekoetxeak argitzen duenez- ezer zehaztu barik, oraingo ikastetxean, ikastetxe berri batean, orain daudenekin batera...".

Karmelo ikastolako ordezkariak, euren aldetik, Hermanitas de los Pobresen ondoan ikastolarentzat toki



egon badagoela azaldu zuten eta oraindik ere egin, egin daitekeela. Izan ere, orube horretako urbanizazio eta eraikitze lanak egiten dituen enpresa prest dago ikastola egiteko beharrezkoak diren aldaketak onartzeko.

Udal ordezkariak ezetzaren aurrean, Karmelo ikastolak beste bide batzuei ekin beharko die. "Hitzetatik ekin-tzetara igarotzeko tenorea heldu da", dio Karme Aurrekoetxeak. Horrelaxe egin zuten maiatzaren 17ko arratsaldean. Ikastolako gurasok, ikasle eta langileek trafikoa eten zuten Menendez Pelayo eta Fika kaleen artean. Negozialetaren bidea antzu suertatu ostean mobilizazioaren ordua jo du.

### IKASTOLAREN JARRERA

Karmelo ikastolak behin eta berriz errefusatu ditu instituzioek egindako proposamenak. Jarrera horren atzetik arrazoi sendoak daudela erakutsi ere egin dute ikastolaren arduradunak. Batetik, toki aldaketarako proposamen gehienek ikastola berria auzotik kanpo eraman nahi zuten. Batzutan kanpo ez ezik, uruti-urritira, Zurbaránbarri edo Miribilla aldera esate baterako.

Beste batzutan, oster, proposamenek ez dituzte beharizan pedagogikoak kontuan hartu. Azkenik, Mina del Morro bezalako eskaintza batek ez du aldean inongo zehaztapenik ekarri. "Argi dago guk ezin dugula baietz esan ez badakigu zehatz-mehatz zer den ikastolaren etorkizunari eskaintzen zaiona", dio Karme Aurrekoetxeak. Horrelako erabaki handi baterako behar bezalako ber-

meak eskatzen dituzte. Eta, bestetik, "Karmelo ezin dute Santutxutik atera, Santutxuko delako eta atera ezker auzoan D ereduko eskaintza murriz-murrizta izango zen". Kontu egin, Karmeloz gain Luis Briñas da eredu euskalduna daukan eskola publiko bakarra. Hala ere, Luis Briñas Santutxuko beste muturrean dago, Basarrate ondoan.

Badirudi ikastolaren arrazoiak pisu handikoak direla, auzoak ematen dion babes ikusita behinik behin. Aurreko zenbakian esan legez, Santutxun 'Ikastetxe berri bat behar dugu' plataforma

sortu da, ikastola berria Santutxun bertan egin dezaten eskatzeko. Hainbat elkarte, sindikatu, kultur talde eta gizarte eragile batu da Santutxuk ikastola berri eta duina lor dezan.

### DENBORA KONTRAN

Karmelo ikastola berria Hermanitas de los Pobresen ondoko orubean egiteko arazorik handiena denbora da. Izan ere, eremu zabal horretan egin beharreko urbanizazio berriko lanak hasita daude. Oraindik ere garaiz dabil-tza ikastolako proiektua bertan txertatzeko, baina erabakia ez bada laster hartzen epeak gaituztuko dira eta Santutxun bertan ikastola egiteko aukera hori galduko da. Eta argi dago Santutxu lako auzo batek eremu libre gutxi dituela.

Ikastolako arduradunak ondo baino hobeto dakite denbora premian daudena. Horregatik, harremanak bizi-kortu dituzte ahalik eta gehien ikastola berriaren aldeko indarrak biltzeko asmoz. Azken egunetan EAko Bizkaiko presidente Juan Karlos Goienetxea eta Bilboko Hezkuntza zinegotzi Jose María Uribarriekin elkartu dira. Atxuriko auzokideekin ere egon dira, Batasunaren ekimen baten ondorioz. Surbisan -Hermanitas de los Pobreseko orubeko urbanizazioko udal elkarte arduraduna- ikastolaren aldeko proposamena aurkeztuko da hurrengo batzarrean. Azkenik, Karmeloko arduradunak udal talde guztiekin harremanetan dira Bilboko udalbatza osoa ikastola berriaren alde ager dadin.

ZUBEROTARREKIN BAT  
Helburua: 1.000.000 €

**AUZOLANEAN**

Xiberroa  
garatzen! egitasmoa

deitu orain:  
902 33 88 66  
05 59 46 13 89

www.udalbilbiza.com  
UDAL BILBITZA

## IMANOL AGIRRE: "EGUN NAHIKO MAILA ALTUAN NABIL"

Testua: Unai Cuevas  
Argazkia: Iñigo Azkona

*Begoñan bederatzia urte bete arte bizi izandako Imanol Agirrek egundoko txapelketa egin du aurten. Egui handia atzean utzi eta Barriola indartsuaren kontra galdu ostean, maila altua eskuratu du. Emaitza hobea lortzeko aukera izan zuela pentsatzen du baina, dena den, pozik ageri da lortutako fruituekin eta zaletuek, mahatsorriak barne, jasotako animuengatik.*



Txapelketa aspaldi bukatu zenuen, baina geroztik buelta gehiago eman al diozu?

Buelta batzuk eman nizkion bukatu bezain pronto. Dena den, dagoeneko nahiko lasai nabil eta orain udara begira hasia naiz.

Egui eta Barriolaren kontrako partidak berriro ikusi al dituzte?

Bai. Eguiren aurkako norgehiagoka Barriolaren kontra jokatu aurretik ikusi nuen. Hala ere, azkenengo partida izaten da geratzen dena. Eta gehiago egiteko aukera eduki izan ote nuen zentzazioa geratu zitzaidan. Orain, behin pasatuta, ezberdin hasi izan balitz aukera gehiago izango nituela pentsatzen dut bana aitortu behar da Abel hasieran ondo aritu zela eta bere meritua da.

Norgehiagoka horietan zale ugari bildu zenituen eta horien artean Karmelo Ikastolakoak ere ikusi ahal izan ziren.

Hainbeste denbora pasa ondoren jendea zutaz oroitzeak gauza berezi bat bizi duzula esan nahi du. Partidaren ostean enteratu nintzen pankarta jarrita zegoela, batzuk agurtzera etorri zitzaizkidan, baina norgehiagokaren gorabeherak direla eta, beraiekin segundo bat baino besterik ezin izan nuen egon. Beraz, frontoietan ez bada, gutxienez, kalean noizbait agurtzea espero dut.

Zure burua frontoiko langile gisa definitu izan duzu. Baina noiz uste duzu faboritua izatera pasatuko

zarela edota zer uste duzu falta zaizula faboritua izateko?

Egun, nahiko goian sartuta nagoela uste dut eta maila honetan jendea oso indartsu heltzen da. Egui, adibidez, txapela irabazteko hautagai bat zen eta irabazi egin nion. Nire kasua ezberdina litzateke ez dudalako beraien (faboritoen) ibilbidea ezta beraien kolpea ere. Beraiek eskuz banaka jokatzeko dohai apartak dituzte nik ditudanekin alderatuz. Orduan, normala da ni langilea izatea.

Datorren urteko txapelketari begira, aurtengoa errepikatzea sinatuko al zenuke?

Beti nahi duzu gehiago. Dena den, aurtengoa errepikatzea izango zen bi partida irabaztea eta horrek esan nahiko luke finalean sartuko nintzatekeela eta niretzat hori oso positiboa izango litzateke. Nik espero dut datorren urtean, berriro ere, lan handia egitea. Eta aurten gertatu den moduan fruituak ematen baditu pozik geratuko nintzateke.

Gaiaz aldatuz, zer iritzi duzu Mikel Goñirekin pasatu denaren gainean?


Holako gai batean iritzia ematea zaila da oso. Inork ez ditu datu asko zer gertatu den esateko eta beraz, nire ustez, garrantzitsuena Mikeli laguntza ematea da eta bera aurrera ateratzea, oraindik pilotan jokatzeko denbora ugari baitu. Aurrera ateratzea espero dut.

## ARMAÑON (854 m.) SANTECILLA (KARRANTZA)

Bilbotik, Zalla, Otxaran, Villaverde de Turtzioz eta Escrita mendatean zehar, Karrantza haranera helduko gara. Errepide berberetik jarraituz Molinar herrira helduko gara. Han bainuetxe ospetsua dago. Handik kilometro batera, gutxi gora behera, Santecilla eta Ranerora eramango gaituen errepidea hartuko dugu eskuinera. Handik gora Santecilla (A) herrira helduko gara. Han utzi genuen autoa.

Handik aurrera auzunea gurutzatuz, ur gordailu (B) bat ikusiko dugu ezkerrean eta hamabost minutura, basabide zabalagotik igonez, ezker aldean, etxola handi bat (C) aurkituko dugu zelai baten barruan. Apur bat gorago, etorritako basabidea (D) utzita ezkerretik igotzen den beste basabide batetik abiatuko gara: Handik hogeita minutura eskuinean eta behean beste etxola bat (E) ikusiko dugu. Haraino heldu baino apur bat lehenago ezkerretik beste basabide bat agertzen da; guk hau hartuko dugu eta hasieran dagoen hesia gurutzatuz, hamar minutura hirugarren etxola bat ikusiko dugu. Haren ezker aldeetik pasatu eta zelai bat zeharkatuta hesiaren ondotik igongo gara. Hesia aurrez aurre jartzen zaigunean zeharkatu egingo dugu eta goialdean, lautada batean egongo gara.

Handik aurrera eskuinera egin behar dugu beti. Laster "Surbias" deritzon tokira helduko gara (harrizko muinoa da), eta gailurretik doan basabidetik eta hesi baten ondotik ibiliz (hesi honek Kantabria eta Bizkaia mugatzen ditu), laster garaituko dugu Los Carcelares deritzon tokia; geroago 846 metroko gailur batean egongo gara (izen gabea) eta azkenek Armañon tontorra (854 m.) lortuko dugu. Han erpin geodesiko eta txartel kutxa bi daude.



### JAKINGARRIAK

Los Carcelaresetik hurbil, Galupa izeneko inguruan izen bereko tumulu bi eta trikuharri txikia ikus daitezke, eta aipatu dugun izen gabeko mendiaren maldan trikuharri handi bat. Armañon tontorretik oso hurbil ikus daitezke Jorrios mendia (837 m.). Ezkerrean eta urrunago, gailurria jarraituz, harkaitz tontor baten gainean dagoen baseliza bat ere (Las Nieves) ikus daitezke.

Santecillatik Armañoneko puntara bi ordu.

## Lutxo Egiaren 'Paperezko hegazkinak' airean dira

Begoñako idazleak bere lehen eleberria plazaratu berri du

*Pasa den maiatzaren 16an, Alde Zaharreko Kalderapekon Lutxo Egiaren estreinako eleberria aurkeztu zen jendaurrean. Londres eta kazetaritzaren inguruko eleberria idatzi du mahatsorriak; bertan kritika eta autokritika dira oinarri. Begoñakoak idazten duen bigarren liburua bada ere, bere lehen eleberria da 'Paperezko hegazkinak'. Goizean prentsaurreko formala egin bazen ere, lagun arteko giroan bere eleberria aurkezteari ez zion muzin egin Lutxok.*

*Testua: Iratxe Ruiz.  
Argazkiak: Iñigo Azkona*

**I**dazlearen laguna den Eneko Herranek eman zion hasiera ospakizunari. Eleberriaren izenburu bera duen kanta abestu zuen bere gitarrarekin batera. Idazleak aurrerago aitortu zuen legez nobelaren izenburua Enekori zor dio.

Londresen ematen den istorioa kontatzen da liburuan. Protagonista, bertara joandako euskal herritarra da. Herritik alde egiteko pertsonaiak duen aitzakia Gernikako bonbardaketaren garaian kazetaritza lanean jardutea da. Bonbardaketaren osteko kronikak egiten hainbat kazetari ibili baitziren atzerrian. Kazetari horien artean ingeles bat zegoen eta berak burutzen zuen lanaren jakin-minez Galder protagonista Ingalaterrara doa.

Gaur egungo Londres da eleberriaren eskenatokia baina denboran eta espazioan saltoak ematen dira kontakizunean. Londres eta Gernikan garai hartan bizi zena irudikatzen da. Hainbat gai azaltzen dira eleberrian -bonbardaketa bera, informazio eta desinformazioa, ...- baina, oinarrian traizioaren

ideia dago une oro. "Nahiz eta bi istorio batera kontatu, niretzat ez da liburu argumentala. Gogoe-ta gaiak du garrantzi gehien. Asmo gaitzoz idatzitako nobela da. Banuen zer satirizatu, zer kritikatu. Gainera, umoreak eta ironiak pisu handia du eta barre egiteko parada badago".

Eleberriaren egituraren inguruan esan behar, kapitulu bikoitietan garagardo marka bat agertzen dela izenburuan. Bakoitietan ostera, Gernikaren inguruko kontakizunak deskribatzen dira. Gertakari errealak dira kontatzen direnak baina modu metaforikoan beti.

'PAPEREZKO HEGAZKINAK', NONDIK DATOZ? 1997an, Miguel Angel Blanco hil eta lau egunetara Lutxok Londres aldea egin zuen denboraldi luze baterako. Hilketaren ondorengoko egunak "oso egun mediatikoak" izan ziren idazlearen aburuz. Bertoko hedabideek zuten jarrera zein zen aztertzeko aukera izan zuen eta Londres heldzerakoan albisteak izan zuen oihartzun ikaragarriak harritu zuen Lutxo: "Nire burua 'shock' batean ikusi nuen.

**"Eleberri konprometitua  
egiten saiatu naiz non  
kritika eta autokritika  
oinarrian dauden"**

Isolaturik sentitu nintzen, Euskal Herrian gertatzen zenari buruzko informazioa jakin nahi izanez gero ABC, El Mundo, El País irakurri edota Radio exterior de España entzun behar nuen eta hori ez zen une horretan entzun nahi nuen informazioa!". Orduan, Londresetik jaso ahal zuen informazio guzti hori pilatzeari ekin zion. Nobela bat idaztearen ideia gero sortu zitzaion.

Londresetik Dublinera joan zen ostean eta bertan, "zoritarrez" (idazlearen hitzetan) euskaldun talde bat ezagutu zuen. Ostiralero, Soledad Galiana Gararen Dublineko kolaboratzailea denaren etxean biltzen ziren euskaldunak. Bertan, garagardo artean Radio Exterior de España entzuten zuten. Esperien-

**"Asmo gaitzoz idatzitako  
nobela da. Banuen zer  
satirizatu, zer kritikatu"**

tzia horretatik bururatuko zitzaion geroago Galder pertsonaia sortzea. "Galder, gerra zibilean ibilitako kazetari baten peskizan edo joaten da Londres baina gero bertan, beste giro batean murgilduko da. Egoerak bultzatuko du Galder 'absurdora'".

Lutxok oraindik gogoratzen du irriti hartan entzuten zituztenak: "Irratira deitzen zutenen adierazpenak batzuetan barregarriak ziren baina gehienetan absurdoak. Egun, oraindik oroitzen dut deitu zuen gizon batek esandakoa: 'Nire Donostiako lagunak esan dit PNV-koa izateko gutxienez lehen lau abizenak euskaldunak izan behar dituzula,...' Horrelakoak entzun behar genituen!".

Lutxoren hitzetan eleberria ez da historikoa nahiz eta gertaera historikoak kontatu. "Nobelan Gernika eta Londres agertzen dira. Gernika oso metaforikoa da. Bi desberdin bereiztuko genituzke. Alde batetik Gernika da Irakeko bonbardaketa ikusezinak edo espainiar bati galdetzea zer den Korrika edota ikusten ez dugun guztia. Gernika ere bada Nagasaki, Dresde, Hiroshima, Yenin, Ramala. Beste alde batetik Gernika mediatikoa legoke. Momentu

**"Ez da nobela  
autobiografikoa baina nik  
Londresen ikusitakoan  
oinarritzen da"**



**"Paperezko hegazkinak"**  
Lutxo Egia  
2002, nobela

batean gertatu zena eta ezagutzen ez duguna. Hau eguneroko bizitzan gertatzen da".

Behin eleberria idatzita izenburu bila hasi zen Lutxo baina alferrik: "Izenburua Enekori zor diot. Topatu ezinik ibili nintzen luzaroan eta eleberria ez argitaratzea ere pentsatu nuen. Zortzi lerroko izenburu oso txarrak bururatzen zitzaizkidan! Erdi desesperaturik Enekorengana jo nuen. Tituluak sinbologia argia adierazten du. Hegazkinak Gernikako zeruetan ibili ziren eta Londreseko nire etxe ondolik bi minuturo pasatzen zen bat".

Lutxoren aurkezpenaren ondoren eta Enekoren kantak bukatu zirenean, zenbait eleberri banatu zituzten bertaratu zirenen artean. Eta nahi duenak, interneten dauka oso-osorik irakurgai, helbide honetan:

[www.susa-literatura.com/](http://www.susa-literatura.com/)

**Gelaya** INMOBILIARIA  
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA-SALMENTA - ALOGERAK - ...  
Iturriaga, 92  
Tfnoa. 94 473 07 78  
48004 SANTUTXU - Bilbo

**ADI** Oleta, s/n - 48970 BASAURI  
Tel. 94 426 08 08  
**ASESORIA** Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO  
Tel. 94 411 08 55  
fISCAL - CONSUMO - LABORAL  
adiasesor@adi.euskalnet.net  
**Zergak-lan harremanak  
kontabilitatea juridikoa  
merkatalgintza**

**PRESOAK KALERA  
AMNISTIA OSOA!**  
**SAAK**

# horoskopoa

**Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra.  
Amari kasurik bez, aita ikusi bez, ... uiuiiiii! Nondik zatozan ahaztuta zagoz ala?

**Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.  
Aspaldi hontan buruan bakazinoak baino ez darabilzuz. Eguzkia agertu, agertu da baina oporrak oraindik noko urrun dagoz, motel!

**Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.  
Interneten txateaten emoten dozuzan orduen erdia ikasten sartuko bazenduz...

**Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.  
Eginda dago! Orain, badakizu, etzan zaitez, hartu egizu atseden apur bat eta disfrutatu.

**Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.  
Kinielak eta bonolotoak. Itsuen kupoia eta tabernako 'mundialeko pelotilla'. Euskal sena barru-barruan daukazu, denagaitik egin behar da apostu...

**Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.  
Zertan emoten dozu horrenbeste denbora liburutegian? Orain gitxi arte liburuak ziranik be ez dozu jakin...

**Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.  
Beti duda-mudan, zalantza josita, erabagiten jakin barik. Zirt edo zart egiteko garaia ailega jatzu.

**Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.  
Oraindik ez dozu ligatu, ezta? Lasai, udako beroak gauzak erraztuko deusuz.

**Sagitaris:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.  
'Esaiok, ez pentsa gehiago, esaiok' kantaten eben aspaldian Hertzainak-ekoek. Eta arrazoina euken. Ez izan damuaren beldur. Esan izanaz edo ez izanaz bardin-bardin damu zeinkez.

**Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.  
Negarra dariela itziko dozuz zeure pretendiente guztiak? Mesedez, pentsatu ondo komentura sartzeko ideia hori...

**Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.  
Zure zorientasunaren kurba hori gero eta zorientsuago agertuten da. Domekero sei kilo magurio jan barik be zorientsu izan leike...

**Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.  
Telesisnoko mandoan badago botoi gorri bat. Hori sakatuten badozu, telesisnoa atoan amatzen da. Jakin daizun...

# agenda

**EKAINAK 6:**  
'EUSKARAZ DIBERTITZEKO MANERAK' HITZALDIA. KIKE AMUNARRIZ ETA ASISKO URMENETA. 20:00ETAN.  
SANTUTXUKO AEKN (ARBIDEA 21)

**EKAINAK 7:**  
BAR PUERTO. KONTZERTUA.  
KAFE ANTZOKIAN. 22:00ETAN.

**EKAINAREN 7-8-9:**  
GETXOKO BLUES JAIALDIA. KONTZERTUAK. ERROMOKO ESKOLETAKO PLAZAN DOHAIN.

**EKAINAK 8:**  
UDABERRIKO BERTSO SAIOAK.  
'BIZKAITARRAK'. IGOR ELORTZA, IRATXE IBARRA, FREDI PAYA ETA ARITZ LOPATEGI.  
KAFE ANTZOKIAN. 12:30ETAN.  
ANTOLATZAILE:  
SANTUTXUKO BERTSO ESKOLA.

**EKAINAK 13:**  
ASIER SERRANO, JEXUSMAI LOPATEGI. KONTZERTUA.  
KAFE ANTZOKIAN. 22:00ETAN.

**EKAINAK 15:**  
UDABERRIKO BERTSO SAIOAK:  
'FINALISTAK'. ANDONI EGAÑA, UNAI ITURRIAGA, MAIALEN LUJANBIO, SUSTRAI KOLINA.

**EKAINAREN 15-16:**  
MENDI BIZIKLETAZ EDO TREKKING RIO LOBOSEKO ATAKAN (SORIA). UCEROTIK HASITA. MENDI IRTEERA. EGUZKI LOREA MENDI TALDEA.

**EKAINAREN 30:**  
MERIENDILLAS (1003 M) ETA PANCORBON ESKALADA (BURGOS). EGUZKI LOREA MENDI TALDEA.



## UDA HONETAN EUSKARA ZURE KOLOREA



### AUKERATU ZURE KOLOREA

Epe laburrean euskara sakona bilatzen baduzu, **GOROZIKA** barnetegia da behar duzun metodoa.

Si te gusta coger color poco a poco, sin insolaciones ni quemaduras, aplícate el método de **BILBO ZAHARRA**

### SI NO TE VAN LAS CREMAS...

Te presentamos una posibilidad diferente de broncearte con el programa multimedia de autoaprendizaje **HEZINET**. De esta manera cogerás color a tu ritmo, sin horario fijo.

